

Ezpalak

JON TORNER

‘Lucio’ dokumentalak Boloniako (Italia) Biografilm jaialdiko sail ofizialeko sari nagusia irabazi du. Aitor Arregik eta Jose Mari Goenagak zuzendu dute Lucio Urtubia anarkistari buruzko filma.

Günter Neuhold austriarra (Graz, 1947) izango da Bilboko Orkestra Sinfonikoko (BOS) zuzendari berria. 1986tik 1990era bitartean Flandriako Orkestra Sinfonikoaren zuzendaria izan zen, 1989 eta 1995 artean Karlsruheko Badisches Staatstheater antzokiko musika zuzendaria eta 1995 eta 2000 artean Bremengo antzokiko musika zuzendaria. 2011 arte izango da BOSeko zuzendaria.

Karlos Zabalak Marie Darrieussecq idazlearen *Tom hil da* (Alberdania) eleberria euskaratu du. Jatorrizko liburua, *Tom est mort*, iaz argitaratu zuen Darrieussecqek.

Euskarazko kultura industriaren “gain-behera” eta Jaurlaritzaren egitekoa

GRAFIKOGILE, editore, banatzaile eta liburu dendek “Eusko Jaurlaritzak euskarazko kultura industriaren gainbehera eragozteko esku hartu ez izana” salatu dute prentsa ohar baten bidez. Hezkuntza Sailak onartutako mailegu bidezko testu liburuen doakotasun ereduak euskarazko kultura industriari kalte egin diola adierazi dute, eta hori eragozteko eta sektore horren bideragarritasuna bermatzeko Jaurlaritzak ez duela neuririk hartu. Halaber, euskarazko liburuen argitalpen industriaren biziraupena arriskuan egonik, “elkarrizketarako borondaterik ez izatea eta sentsibilitaterik gabe aritzea” leporatu diote Hezkuntza Sailburu Tontxu Camposi.

Internet bidezko film laburren lehiaketa jarri du abian Euskosarek

EUSKO MOVIE 2008 izena du Euskosare komunitate birtualak antolatutako online film laburren lehiaketak. Telefono mugikorren bidez, argazki kameraz edo bideoz grabatutako lanak aurkez daitezke. Uztailaren 20a arte dago zabalik lanak entregatzeko epea eta 1.200 euro banatuko dituzte irabazleen artean. Pelikulek gai hauetako bat jorratu behar dute: Euskaldunak eta itsasoa; euskal kirolak, gastronomia eta pertsonaia ospetsuak; eta “euskaldun baten hitza” esaerak duen konnotazioa. Lehiaketaren oinarriak www.euskosare.org webgunean kontsulta ditzakezue.

Abarrak

Suspensea kanpai-dorrean

Vertigo pelikularen 50. urteurrena bete da aurren; mende erdi Alfred Hitchcock handiak lan hau zuzentzeagatik Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra irabazi zuenetik. Iaz, gainera, munduko hamar pelikula onenen zerrendan sartu zuen Amerikako Zinema Institutuak. Ez dakigu James Stewartek antzezturiko *Vertigo* famatuak halako ohorea merezi duen, film on asko –eta beste hainbeste txar– pantailaratu direlako Lumière anaiek zinematografoa asmatu zutenetik, baina dudarik gabe Hitchcock britainiarrak ohore guztiak merezi ditu.

Askok gustatzen zaizkigu bere pelikulak –50 baino gehiago zuzendu zituen!– eta hainbat belaunaldi berak sortutako irudiekin hazi gara: Anthony Perkins beldurgarriak protagonista dutxan akabatzen duenekoia (*Psycho*); eskolatik irtendako umeek jasandako txorien eraso bortitza (*Txoriak*); ilunpetan bizilagunaren etxeko gertakariak inpotentzia zelatatzen dituen elbarria (*Rear Window*), gorpua ezkatatuta duten elkartzarren gainean zerbitzaturiko afaria (*Rope*)... edota, *Vertigo*z ari garela, filmaren amaierako eszena gogoangarria, kanpai-dorrean. Dena den, askoz luzeagoa da Hitcockek gure kulturari eta ondo-

ren egin den zinemari utzi dion legatuaren zerrenda.

Tipo bitxia omen zen sir Alfred Joseph Hitchcock: zuzendari britainiar obesoak aktoreekin oso posesiboa zen, pelikuletan planoren batean agertzea atsegin zuen eta bere umorea ez zen askoren gustukoa –adibidez, uretara erortzen den neska baten eszena behin eta berriz errepikaraztea edo proiektzio-operadorea katez lotzea, laxanteak eman ostean–. Kontuak kontu, txalogarria da misteriozko filmi egin zien ekarpena, argi-ilunen erabileran, tentsioa islatzen duten planoetan edo amaierara arte intriga mantentzen duten gidoietan. Zerbaitengatik zen eta izango da beti suspensearen maisua.



MIKEL GARCIA